

Antolatzailea:



ULIBARRI
EUSKALTEGIA



Laguntzailea:



ULIBARRI EUSKALTEGIA

OLENTZARORI GUTUNEN II. SARIKETAREN OINARRIAK, 2011

Euskal kulturen erro sakonak dituen Olentzaro da gutunen hartzailea. Erdi pertsona erdi mitoa den pertsonaia honek neguko solstizioaren sinbologia osoa biltzen du. Urtaro honetan gizakiak joera nabarmena erakusten du besteekiko harremanetarako.

Sariketa honetan Ulibarri Euskaltegiko ikasleek dute parte hartzea.

SARIKETAREN OINARRIAK

1. Gaia Olentzarori gutuna euskaraz.

2. Gutunen luzera eta aurkezteko modua

- Aurkeztu beharreko gutunek, gutxienez, 100 hitz izango dituzte eta, gehienez, 140.
- Lanak eskuz zein makinaz idatzita onartuko dira, DIN A-4 neurrian, alde bakarrean idatzita bi espazioko tartarekin.
- Idazleen izena alde zuzenetik ez jakitearren, honela aurkeztu behar dira lanak: gutunak gutunazal handi batean sartuko dira. Gutunazal horretan beste beste txikiago bat ere sartuko da. Gutunazal txikiaren barruan parte hartzailearen **izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, urratsa eta ordutegia** agertuko dira. Kanpoaldean, berriz, ez da ezer idatziko.

3. Aurkezteko epea 2011ko abenduaren 2tik abenduaren 13ra, biak barne direla.

4. Idazlanak non aurkeztu

Ulibarri Euskaltegiko idazkaritzan, bulego orduetan, edota honako helbidera bidaliz:

Ulibarri Euskaltegia
Gardoki 3, 1. solairua
48008 Bilbo (Bizkaia)

5. Saria

1. Liburu elektronikoa.

6. Epaimahaia

Epaimahaiburua: Ulibarri Euskaltegiko materialgintza arduraduna.

Mahaikideak: Hiru euskara irakasle (1., 2. eta 3. mailetako arduradunak).

Idazkaria: Sariketa honen antolatzailea.

7. Balorazio irizpideak

Honako hau baloratuko da: hizkeraren naturaltasuna, zuzentasuna, aberastasuna, estiloa eta originaltasuna. Ez dira baloratuko euskaraz oker idatzitako lanak. Halaber, epaimahaiaren esku geratuko da saririk eman gabe uztea, baldin eta lanek gutxieneko kalitaterik ez balute.

8. Sariketaren oinarriak argitaratzea

Oinarriak euskaltegiko iragarki-tauletan eta web orrian www.ulibbarri.org argitaratuko dira.

9. Lehiaketaren ebazpena:

Epaimahaiak 2011ko abenduan jakinaraziko du emaitza, saridunaren izena euskaltegiko iragarki-tauletan eta web orrian argitaratuko baitu. Saridunari berriaz jakinaraziko zaio sariak non eta noiz emango diren.

10. Lanen jabetza:

Ulibarri Euskaltegia izango da saritutako lanaren jabea eta bere esku izango du lana nahi duen bidez argitaratzeko eskubidea eta egileak emango dio euskaltegiari idatzizko baimena, horrela behar izanez gero. Saririk jasotzen ez duten lanak berreskuratzeko epea hilabetekoa izango da emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita. Epe hori igarota, lanak Ulibarri Euskaltegiaren esku geratuko dira.

Parte hartzaileek lehiaketaren oinarri guztiak onartu behar dituzte. Era berean, ezingo da ekin epaimahaiaren erabakiaren aurka.